



## 1- KLIMA ALDAKETA. ZERTAZ ARI GARA?

Klima osatu zenetik, duela 4.500 milioi urte, etengabe aritu da aldatzen, baina azken bi mendeetan klima aldaketa biziki ari da azkartzen. Zientzialarien ustez, horren eragilea berotegi efektuaren handitzea da. Berotegi-efektua Lurrean bizitzea ahalbidetzen duen fenomeno naturala da. Atmosferan dauden hainbat gasek, CO<sub>2</sub>ak batik bat, eragiten dute, eta, horiei esker, gure planetak islatzen duen eguzkiaren beroaren zati bat bertan gelditzen da; ondorioz, planetako tenperaturak gora egiten du. Hala gertatuko ez balitz, Lurrak -18°C batez besteko tenperatura izango luke, dituen 15°C-ak eduki beharrean.

Azken mendeetan Klima aldaketa azkartzearen arrazoia, berotegi-efektua duten gasen emisioak areagotu izana da; emisioen areagotze hori gizarte industrializatuek eragin dute ibilgailuen, industrien eta baso mozketen eraginez. Gizakiak atmosferara gehien igorritako berotegi-efektuko gasa karbono dioxidoa da (CO<sub>2</sub>); energia ekoizteko eta garraioetarako erabiltzen diren erregai fosilak (ikatz, petrolio eta gasa) erretzearen ondorioz igortzen da gas hori, baina ez da berotegi-efektuko gas bakarra. Berotegi-efektuko beste gas batzuk metanoa (CH<sub>4</sub>), oxido nitrosoa (N<sub>2</sub>O), klorofluorokarburoak (CFC) eta konposatu perfluoratuak dira.

### Eta zer gerta daiteke?

Honela jarraitzen badugu, 4°C igoko da tenperatura 2100. urterako. Ondorioak larriak izango dira: ekaitz gogorak, uholdeak... Beste zenbait lekutan lehortek, desertifikazioa. Basoak murriztu egingo dira, poloen zati batzuk urtuko dira, eta itsas mailak gora egingo du. Kostaldeko lur asko urak hartuko ditu. Zenbait eskualdetan, ur eskasiagatik, nekazaritza etekinak gutxituko dira. Gaixotasun tropikalak beste herrialde batzuetara zabalduko dira...

## 2- HERRITARREN EROSKETA OHITUREK ETA MUGIKORTASUNAK KLIMA ALDAKETAN DUTEN ERAGINA

Gaur egungo mugitzeko ohiturek eta kotxearekiko dugun menpekotasunak gure herriak eraldatu dituzte, herriko espazio gehiena kotxeentzat delarik. Horrez gain, mugitzeko erabiltzen ditugun erregaiak ingurumen arazo larriak ekarri dizkigute: airearen kutsadura, klima aldaketa eta zarata besteak beste.

Guzti hau konpontzeko, mugikortasun jasangarriagoa behar dugu eta horretarako gure ohiturak aldatu behar ditugu.

# KLIMA ALDAKETA

## EROSKETA OHITURAK ETA MUGIKORTASUNA (Galdetegia herritarrentzat)

**Sexua:**  gizonezkoa  emakumezkoa  
**Adina:**  25 bitartekoa  26-45  46-60  61-90

### 1. Herrian zehar, nola mugitzen zara?

oinez  bizikletan  motoan  autobusean  kotxean  .....

### 2. Zein lekuetara joaten zara oinez?

erosketak egitera  eskolara  lanera  kafea hartzera  .....

### 3. Ba al duzue kotxerik zuk edo zure familiak?

bai  ez

### 4. Baiezkoa bada, zertarako erabiltzen duzue?

erosketak egitera joateko  eskolara joateko  lanera joateko  
 kafea hartzera joateko  .....

### 5. Erabiltzen al duzu garraio publikoa?

beti  askotan  gutxitan  inoiz ez

### 6. Erabiltzen baduzu, zertarako erabiltzen duzu?

erosketak egitera joateko  eskolara joateko  lanera joateko  
 kafea hartzera joateko  .....

### 7. Non egiten dituzue erosketak?

gehienetan herrian  gehienetan herritik kanpo

### 8. Herritik kanpo egiten badituzu, nola joaten zara?

kotxean  autobusean  motoan  bizikletan  oinez  .....

### 9. Agian entzungo zenuen mundu osoan klima aldatzen ari dela. Horri klima aldaketa deritzogu. Klima aldaketaren ondorioak oso larriak izango dira bizidun guztiontzat. Ba al duzu informaziorik horri buruz?

bai  ez  ez dakit

### 10. Klima aldaketaren eragile nagusienetako bat, besteak beste, garraioak airera igortzen duen CO<sub>2</sub>a da. Guztiok hartu beharko genituzke neurriak klima aldaketa eragozteko. Zuk ze neurri har zenitzake?

---

---

### 11. Eta Udalak, zerbait egin al dezake garraioaren erabilera gutxitzeko? Zer egin beharko luke?

---

---



# KLIMA ALDAKETA



Eskolako Agenda 21

DBH I - 2 MAILAK



Argazkiak: Eregi, Euskara eta Komunikazioa

# KLIMA ALDAKETA

## HERRITARREN EROSKETA OHITURAK ETA MUGIKORTASUNA (Galdetegia dendarientzat)

**Sexua:**  gizona  emakume  
**Adina:**  25 bitartekoa  26-45  46-60  61-90

**1. Herritarrek herrian egiten al dituzte erosketak orokorrean?**

Gehienek bai  gehienek ez  egunerokoa bakarrik  .....

**2. Nola etortzen dira gehienak erosketak egitera?**

oinez  bizikletan  motoan  autobusean  kotxean  .....

**3. Herrian erosketak egiten ez dituenak, zergatik uste duzu joaten direla herritik kanpo?**

- Denda txikitetan aukera gutxiago dagoelako
- Denda txikitetan gauzak garestiago daudelako
- Asteburuetan jendeari herritik irtetea gustatzen zaiolako
- .....

**4. Herritik kanpo joateak, garraioaren erabilera eskatzen du. Guziok hori egiten badugu, garraioa asko erabiliko dugu eta kutsadura eta gainontzeko arazoak gehituko dira. Ze konponbide proposatzen duzu?**

---

---

**5. Herriko dendariok saiatzen al zarete bertako produktuak saltzen?**

Gehienok bai  gehienok ez  ez dakit

**6. Denda honetan aurkitu al daitezke bertako produktuak (barazkiak, frutak...)?**

beti  gehienetan  gutxitan  oso gutxitan  inoiz ez

**7. Agian entzungo zenuen mundu osoan klima aldatzen ari dela. Horri klima aldaketa deritzogu. Klima aldaketaren ondorioak oso larriak izango dira bizidun guztiontzat. Ba al duzu informaziorik horri buruz?**

bai  ez  ez dakit

**8. Garraioan mugitzeak, nahiz pertsonak edo produktuak kanpotik hona garraiatzeak, ba al du zure ustez erlaziorik klima aldaketarekin?**

bai  ez  ez dakit

**9. Klima aldaketaren eragile nagusienetako bat, besteak beste, garraioak airera igortzen duen CO<sub>2</sub>a da. Guziok hartu beharko genituzke neurriak klima aldaketa eragozteko. Zuk ze neurri proposatzen duzu/dituzu?**

---

---

**10. Eta Udalak, zerbait egin al dezake garraioaren erabilera gutxitzeko? Zer egin beharko luke?**

---

---



### 3- BALORAZIOA

Galdetegieta jasotako informazioan oinarrituta (Ingurugiro Etxeko web orrian EA21en sailean zintzilikatuta izango dituzue [www.ingurugiroetxea.org](http://www.ingurugiroetxea.org)), atera itzazue ondorioak eta gelakideen artean eztabaidatu. Ondorio horietan oinarrituta, taldeka power pointak egin ditzakezue klima aldaketan eragin dezaketan jarduerak azpimarratuz.

Balorazioa egiteko honako puntuak eduki ditzakezue kontutan:

- Heritar gehienek non egiten dituzte erosketak, herrian ala heritik kanpo?
- Nola mugitzen dira?
- Inkestetan jasotako erantzunen arabera, zerbait egin al daiteke jendeak erosketak herrian egin ditzan?
- Zeinek egin beharko luke eta zer?
- Klima aldatzen ari dela askotan entzuten dugu. Arazo horren eragile nagusienetako bat garraioa da airera igortzen duen CO2agatik. Gaur egun ditugun ohiturek erlaziorik ba ote dute arazo honekin?
- Zein neurri hartu beharko lituzkete herritarrek arazoari aurre egiteko?
- Eta Udalak? Zer egin dezake? Galdera honi erantzun aurretik irakur ezazue Udalak BERTAN elkartearekin batera herriko merkataritza biziberritzeko eta herritarrek erosketak egitera kanpora joatea ekiditeko azken hiru urteetan egin dituen jarduerak. I. eranskinean dituzue.

### 4- KLIMA ALDAKETA GUTXITZEKO NEURRIAK

#### Ari al gara zerbait egiten?

2015eko azaroaren Parisko Goi-bileran, nazioarteko komunitate osoak lehenengo aldiz konpromisoak hartu ditu, besteak beste, tenperatura % 1,5 gradu ez igotzea eta bost urtero berrikustea.

Euskadik ere 2050erako Klima Aldaketarako Estrategia onartu du, eta lehenengo helburua honako hau da: Berotegi Efektuko Gasen emisioak gutxienez %40 murriztea 2030erako eta gutxienez %80 murriztea 2050erako, 2005. urtearekin alderatuta.

Zure egunerokoan oinarrituta eta beste urte batzuetan hartu zenituzten konpromisoak (II. eranskinean dituzue) kontuan izanda, ze neurri har ditzakezu klima aldaketa gutxitzeko? (beste urtetan hartutako zein konpromiso betetzeko prest zaude, edo berriker hartzea beharrezkoa dela uste al duzu?)

.....

.....

Zer proposatuko zenioke Udalari? (Proposamenak idatzi aurretik, komenigarria da beste urteetakoak berrikustea ez errepikatzeke. II. eranskinean duzue zerrenda)

.....

.....

*Gogoan izan, aldaketarik egingarriena, norberarena.*

*Hasi zu zeu ohiturak aldatzen!!*